



ARNAS POLIGRAFIA HAURRETAN

ZER DA ARNAS POLIGRAFIA?

Arnasketa-poligrafia lo-proba bat da, eta, funtsean, loaldiko arnasketa aztertzen du. Besteak beste, sudur eta/edo aho bidezko aire-fluxua, zurrunga, odoleko oxigenoa eta torax- eta abdomen-mugimenduak neurtzen dira.

Probaren helburua da haurrak loaldian arnas nahasmendua duen baloratzea, haren larritasuna balioestea eta, hala badagokio, tratamendu bat adieraztea.

Probaren egunean galdetegi bat emango zaizu, eta bertan probaren gauari buruzko adingabearen loari buruzko galdera batzuk erantzungo dituzu; besteak beste, zer ordutan oheratu den, zenbat denbora kostatu zaion lo hartzea, eta abar. Informazio hori ezinbestekoa da proba behar bezala interpretatu ahal izateko.

NOLA PRESTATU BEHAR DA HAURRA PROBARAKO?

Aldez aurretik jarriko gara zurekin harremanetan, eta azterketa egiteko eguna adostuko dugu.

Probaren egunean, haurrak bere ohiko bizitza egin behar du. Unitatera 21:00ak aldera joango da, aldez aurretik afalduta. Proba egiten ari den ordu-tartean medikazioaren bat hartzen badu, berarekin ekarri behar duzu, eta ohi bezala hartu (langileei jakinarazi, hartualdiaren berri izan dezaten).

Komeni da poltsa bat ekartzea, gau batean etxetik kanpo lo egingo balu bezala (pijama, komuneko estutxea, etab.). Egokitzapena errazteko, baimenduta dago proba hasten den bitartean gurasoak, senitartekoak edo tutoreak (gehienez bi) egotea. Hori hasten denean, pertsona bakarra egongo da **gau osoan**.

NON ETA NOLA EGINGO DIOTE PROBA?

Gurasoak edo tutoreak **LOAREN UNITATE**ra (**Santiago AUO, 2. solairua, B pabiloia**) joango dira adingabearekin, adierazitako orduan.

Itxoin itxarongelan artatua izateko.

Haurrak banakako gela lasai eta isil batean egingo du lo. Buruan, toraxean eta sabelean kable batzuk jarriko dizkiogu aparatu batzuetara konektatuta. Kable horiek loaren kantitatea eta kalitatea erregistratuko dituzte, eta medikuek gaixotasuna diagnostikatzeko aukera izango dute.

Gau osoan, erizaintzako profesional espezializatu batek gainbegiratu du haurra, eta harekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, interkomunikatzaile baten bidez. Halaber, telebista-kameren sistema baten bidez zainduko da.

Nahitaezkoa da langileei laguntzea, eta gauean adingabeak kableak jarrita dituela ikustea.

Proba hurrengo eguneko goizeko zazpiak aldera amaituko da. Kableak kentzen direnean, bainugela izango dute garbitzeko.

Proba amaitzen denean, egiaztagiri bat behar izanez gero, Harrera Zerbitzuan eskatu ahal izango da, ate nagusian.

Probak ez du arriskurik, eta ez du minik eragiten. Deserosotasuna oso txikia da, eta etxetik kanpo kable batzuk jarrita lo egin behar izatearekin lotuta dago.

NON JASOKO DITUT PROBAREN EMAITZAK?

Lo-azterketa egitera joaten zaren gauean, kontsultarako zitazio-orri bat emango dizute. Kontsulta horretan, mediku espezialista batek emaitzak jakinarazi eta azalduko dizkizu, eta tratamendurik egokiena proposatuko dizu. Informazio hori ere idatziz emango zaizu (txostena eta tratamendu-orria, behar izanez gero).

Emaitzei buruzko kontsulta horretara haurrarekin joatea komeni da.